

BESTELAKO XEDAPENAK

ONGIZATE, GAZTERIA ETA ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA

4555

EBAZPENA, 2025eko urriaren 14koa, Etorकिन Harrera eta Integrazioko zuzendariarena, zeinaren bidez ebazten baitira Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuaren 2025eko ekainaren 18ko Aginduaren babesean aurkeztutako dirulaguntza-eskabideak. Agindu horren bidez, oinarriak onartzen dira laguntza ekonomikoak emateko EAEko toki-erakundeei, tokiko organismo autonomoei eta tokiko merkataritza-sozietateei immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitu eta immigrazioaren eta kulturarteko bizikidetzaren alorrean jarduerak gara ditzaten, eta 2025. urterako deialdia egiten da. Dirulaguntzen lehenengo lerroa: immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitzeko laguntzak.

AURREKARIAK

1.– Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuaren 2025eko ekainaren 18ko Aginduaren bidez (2025-07-04ko EHAA, 126. zk.), oinarriak onartzen dira laguntza ekonomikoak emateko EAEko toki-erakundeei, tokiko organismo autonomoei eta tokiko merkataritza-sozietateei immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitu eta immigrazioaren eta kulturarteko bizikidetzaren alorrean jarduerak gara ditzaten, eta 2025. urterako deialdia egiten da. Zehazki, agindu horren II. kapituluak dirulaguntzen lehenengo lerroa arautzen du: immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitzeko laguntzak.

Agindu horren 15. oinarriak 480.000,00 euroko aurrekontu-kreditua ezartzen du EAEko toki-erakundeei, tokiko organismo autonomoei eta tokiko merkataritza-sozietateei immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitzeko dirulaguntzak emateko.

2.– 2025eko ekainaren 18ko Aginduaren 14. eta 16. oinarrietan eskatzaileek finantzaketa publikoa jasotzeko zer betekizun eta baldintza bete behar dituzten zehaztuta dago, bai eta esleipen-irizpide espezifikoak ere.

3.– Lehenengo eranskinean aipatzen diren EAEko toki-erakundeek, tokiko organismo autonomoek eta tokiko merkataritza-sozietateek laguntzak eskatu dizkiote Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saileko Etorकिन Harrera eta Integrazioko Zuzendaritzari, immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitu ahal izateko.

4.– 2025eko ekainaren 18ko Aginduaren 4. oinarriarekin bat etorriz, Balorazio Batzordeak laguntza-lerro horretan aurkeztutako eskaeren gaineko ebazpen-proposamen bat prestatu zuen 2025eko irailaren 10ean egindako bileran, aurreko araudia kontuan harturik.

Horrenbestez, Etorकिन Harrera eta Integrazioko Zuzendaritzaren Balorazio Batzordeak presatutako txosten teknikoa ikusita, eta aipatutako 4. oinarria betez, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Bigarren eranskinean aipatzen diren EAEko toki-erakundeei, tokiko organismo autonomoei eta tokiko merkataritza-sozietateei eranskin horretan bertan zehazten diren diru-zenbatekoak ematea, immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitu ahal izateko laguntza gisa.

Bigarrena.– Laguntzak zatika ordainduko dira. Lehenik, zenbatekoaren % 70 ordainduko da, 10.a) oinarrian ezarritako epea igarotakoan, berariaz uko egin ez bazaio eta diruz lagundutako ekintzen gutxienez % 70i dagokion gastua justifikatu bada 2025eko abenduaren 31 baino lehen. Bigarrenik, 2026an, gainerako % 30 ordainduko da, justifikatzeke geratzen diren gainerako ekintzak 2026ko martxoaren 31 baino lehen justifikatu ondoren.

Hirugarrena.– Erakunde onuradunak berariaz adierazi behar du Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailaren babesa duela diruz lagundutako jarduera guztietan, horiek zabaltzeko, hedatzeko edo, hala badagokio, argitaratzeko ekintzetan.

Laugarrena.– Gastuak Aginduaren 11. oinarrian ezarritakoaren arabera justifikatuko dira.

Bosgarrena.– Dirulaguntza justifikatzeko bidalitako dokumentuak aztertuta, gain finantzaketarik badago edo eskatutako faktura guztiak aurkeztu ez badira, dirulaguntzaren bigarren ordainketaren kopurua txikituko da edo jasotako zenbateko osoa edo zati bat itzuli beharko zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari. Horretarako, Etorकिनен Harrera eta Integrazioko zuzendariak banakako likidazio-ebazpen bat eman beharko du.

Seigarrena.– Dirulaguntzen erakunde onuradunak eta horiei dagozkien zenbatekoa Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko dira.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakioke Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, hala ezarrita baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urriaren 14a.

Etorकिनен Harrera eta Integrazioko zuzendaria,
IGNACIO FARIÑA SARASQUETA.

I. ERANSKINA

IZAPIDETZEKO ONARTUTAKO ESKABIDEEN ZERRENDA

| Espedientea | Erakunde eskatzailea | Proiektua |
|-------------|------------------------------|--|
| 001-1053009 | Durangoko Udala | Immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitzeko laguntzak. |
| 002-1053009 | Busturialdeko Mankomunitatea | Immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitzeko laguntzak. |
| 003-1053009 | Donostiako Udala | Immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitzeko laguntzak. |
| 004-1053009 | Galdakaoko Udala | Immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitzeko laguntzak. |
| 005-1053009 | Tolosaldea Garatzen | Immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitzeko laguntzak. |
| 006-1053009 | Eibarko Udala | Immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitzeko laguntzak. |
| 007-1053009 | Getxoko Udala | Immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitzeko laguntzak. |
| 008-1053009 | Zarauzko Udala | Immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitzeko laguntzak. |
| 009-1053009 | Barakaldoko Udala | Immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitzeko laguntzak. |
| 010-1053009 | Vitoria-Gasteizko Udala | Immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitzeko laguntzak. |
| 011-1053009 | Bilboko Udala | Immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitzeko laguntzak. |
| 012-1053009 | Ermuko Udala | Immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitzeko laguntzak. |
| 013-1053009 | Pasaiako Udala | Immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitzeko laguntzak. |

II. ERANSKINA

LAGUNTZA ONARTU ZAIEN ESKABIDEAK

| Espedientea | Erakunde eskatzailea | Proiektua | Emandako dirulaguntza (euro) |
|-------------|------------------------------|--|------------------------------|
| 001-1053009 | Durangoko Udala | Immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitzeko laguntzak. | 30.000,00 |
| 002-1053009 | Busturialdeko Mankomunitatea | Immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitzeko laguntzak. | 30.000,00 |
| 003-1053009 | Donostiako Udala | Immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitzeko laguntzak. | 30.000,00 |
| 005-1053009 | Tolosaldea Garatzen | Immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitzeko laguntzak. | 30.000,00 |
| 006-1053009 | Eibarko Udala | Immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitzeko laguntzak. | 30.000,00 |
| 008-1053009 | Zarauzko Udala | Immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitzeko laguntzak. | 30.000,00 |
| 009-1053009 | Barakaldoko Udala | Immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitzeko laguntzak. | 30.000,00 |
| 010-1053009 | Vitoria-Gasteizko Udala | Immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitzeko laguntzak. | 90.000,00 |
| 011-1053009 | Bilboko Udala | Immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitzeko laguntzak. | 90.000,00 |
| 012-1053009 | Ermuko Udala | Immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitzeko laguntzak. | 30.000,00 |
| 013-1053009 | Pasaiaiko Udala | Immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitzeko laguntzak. | 30.000,00 |

III. ERANSKINA

UKATUTAKO ESKABIDEAK

| Espedientea | Erakunde eskatzailea | Proiektua | Ukatzeko arrazoia |
|-------------|----------------------|--|--|
| 004-1053009 | Galdakaoko Udala | Immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitzeko laguntzak. | 13.2 oinarriko baldintzak ez betetzea. Aurretiko deialdi batean ere ez dira teknikariak diruz laguntzeko lerro honen bidez finantzatu. |
| 007-1053009 | Getxoko Udala | Immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitzeko laguntzak. | 13.2 oinarriko baldintzak ez betetzea. Aurreko deialdietan pertsonal teknikoa mantentzea finantzatu da, baina ez zen diruz lagundu 2024ko deialdian ez zuelako dirulaguntza lerro horretarako eskaerarik aurkeztu. |